



Zatoz haur- txokora!

Lagun berriak egin eta milaka abentura bizitzeko prest? 4 eta 11* urte bitarteko haurra bazara, hau da zure txokoa! Zatoz zure lagunekin jolastera eta ondo pasatzera!



**Adin tartea desberdina izan daiteke haurtxoko bakoitzaren arabera.*

4 ARRAZOI HAURTXOKOAK EZAGUTZEKO!

- 1. Esperientzia eta bizipen** desberdinen bitartez, haurrak **elkarbizitarako trebatzen** dira, hainbat balio barneratuz: autonomia, laguntasuna, elkarlana.
- 2. Haurrak protagonista** dira antolatzen ditugun ekimenetan! Ekintzen programa prestatzean modu aktiboan inplikatzeko dira. Hala, eginez gozatzen eta ikasten dute!
- 3. Gure eskaintzan hezitzaileak bidelagun** dira. Zer egin, nola egin, zergatik egin? Haurrek esperientzia aberasgarriak bizitzea da eskaintzen dugun programaren helburua.
- 4. Ondo pasatzeko jarduera ugari, eta era askotako jendea** ezagutzeko aukera paregabea!

50 HAURTXOKO ETA 50 GAZTELEKU BAINO GEIAGO

Gipuzkoako haurtxokoei eta gaztelekuei sarean egiten dugu lan. Elkarlan horren xedea da gure zerbitzu publikoak aberastea eta hobetzea, haurrentzako eta nerabeentzako kalitatezko aisialdiaren alde lan eginez.